

TALLIN 2019/20

Tallinnen igaro ditudan 4 hilabeteak primerakoak izan dira. Hiri txikia bada ere, enkantu handiko erdigunea dauka eta bertako giroa oso atsegina da. Kultura ezberdineko jendea ezagutzeko prest bazaude toki aproposa duzu. Estoniarrak nazionalista petoak dira eta haien kultura zein nortasuna berresteko ekintza ugari egiten dituzte. Nik gustokoen izan nituenak uda agurtzeko hondartzan pizten dituzten suteak eta Kardiorg parkean antolatutako argien festibala izan ziren. Oro har, jende barnerakoia da eta zuk esan beharko diezu lehendabiziko hitza, baina hortik aurrera ez da arazorik egongo.

Erasmus ikasleei dagokionez, giro oso ona eta multikulturala dago unibertsitatean zein bertatik kanpoko guneeetan. ESN-ak (ikasle batzaordea) ekintza ugari antolatu zituen hiruhilabetearen hasieran eta bertan elkar ezagutu ginen 200 erasmusen artean. Hortaz, ez zaitetz kekkatu lagunak egiteko aukera asko izango dituzulako.

Unibertsitatea nahiko ongi antolatuta dago eta zalantzarik izatekotan nazioarteko departamendutik laguntza luzatzen dizute beti. Gainera, 4-5 jantoki daude eta liburutegi handi bat, instazioak primerakoak. Nire kasuan, astelehenetik ostegunera izaten nituen klaseak eta astebukaerak libre neuzkan juerga bota, bidatzeko edo beste plan alternatiboren bat egiteko. Lectures edo klase teorikoak eta laborategi zein praktikak izaten genituen irakasgai gehietan, baita talde lanak ere. Lan karga Gasteizkoa baino txikiagoa dela uste dut eta hortaz, errazagoa. Hala ere, lan egin behar da.

Diruari dagokionez antzerako prezioak zituzten dendaetan baino edariak pixkat garestiagoak ziren. Esan beharra dago bertatik europar ipar-ekialdeko hirietara bidatzea oso merkea zela. Gure kabuz zein unibertsitatearekin toki hauetara joan ginen: Riga, Estocolmo, Helsinki, Laponia eta San Petersburgo eta Estoniako beste herri eta hiri batzuk.

Arreta deitzen badizu eta toki ezberdin bat ezagutu nahi baduzu Tallinn aukera bikaina da. Animatu zaitetz ona edo beste lekuren batera joatera eta Erasmus esperientzia bizitzera!